

208/2025 EBAZPENA, martxoaren 26koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena. Horren bidez, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean Bilboko Eskualdeko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostu bat betetzeko deialdian onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen da.

AURREKARIAK

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 14ko 15/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean Bilboko Eskualdeko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko (EHAA, 25 zk., 2025eko otsailaren 6koa, eta BOE, 37 zk., 2025eko otsailaren 12koa).

Deialdian ezarritakoarekin bat etorriz, 15 egun balioduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena zegokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratuko zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori 2025eko martxoaren 5ean amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaituta, BOMSeko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko aginduko du, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak administrazio-bidean aurkezteko.

Horrenbestez, pertsonaleko alorrean indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen 15.1 e) artikuluari jarraikiz (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, EHAA, 219. zk., azaroaren 14koa), lehiaketaren arauak betetzeko,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onestea Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean Bilboko Eskualdeko Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau argitaratzea Osakidetza webgunean.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio, BOMSeko Zuzendaritza Gerentziari, 10 egun balioduneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2025eko martxoaren 26an

 **Osakidetza**
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea
Red de Salud Mental de Bizkaia
BOMSeko zuzendari-gerentea
ARATXU LOZANO OTERO

I. ERANSKINA

BILBOKO ESKUALDEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

D. Patxi Gil López

Baztertuak:

Inor ez